

2025eko urria



Zenbatzaile zehaztugabeak

Zenbatekoa aditzera emateko, zenbatzaile zehaztuez gain —kardinalak, ordinalak, banatzaileak—, badira zehaztugabeak ere, kopuru zehatza ez baizik eta gutxi gorabeherako multzoa adierazten dutenak: *asko, gutxi, hainbeste, hainbat, zenbait, anitz, franko, ugari, nahikoa, hamaika, batzuk...* Horrelako zenbatzaile zehaztugabeak ipintzerako orduan, baina, zalantzak sortzen dira izen-sintagma nola jarri behar den: mugatuan edo mugagabean.

Pasa gaitezen, bada, Euskaltzaindiak jasota duen araua urratsez urrats azaltzera.

KONTUAN HARTZEKO ZENBAIT GOMENDIO:

DEKLINABIDEA:

Bakoitzaren ohiturari jarraituz, sintagmaren ezker edo eskuinaldean joan ohi dira, eta izen-sintagma **mugagabea** eskatzen dute:

- Jende asko**ei** gogoan iltzatuta geratuko zaio gaurko eguna. ***
- Jende asko**ri** gogoan iltzatuta geratuko zaio gaurko eguna.
- Eguzki eklipsea ikusteko aukera izan da munduko hamaika txoko**etan**. ***
- Eguzki eklipsea ikusteko aukera izan da munduko hamaika txoko**tan**.
- Zinema lan ugari**etan** aritu da azkenaldian Jone Laspiur ***
- Zinema lan ugari**tan** aritu da azkenaldian Jone Laspiur.

HAINBAT ≠ ZENBAIT

Ez dira sinonimoak. Alderatu behar izanez gero, honela dira:

- hainbat = asko, hainbeste.
- zenbait = batzuk.

Beste zenbatzaile zehaztugabe ezagun batzuekin erkatuz gero, honela da gradazioa, askotik gutxira: asko/anitz (= makina bat, franko, ugari) → hainbat → zenbait / batzuk / gutxi batzuk / bat baino gehiago → gutxi.

Kasu-markak eranstea, batari zein besteari dagokion izena **mugagabea** jarri behar da:

- Zenbait hedabide**ek** bertatik bertara emango dute Udalerrri Euskaldunen Eguna. ***
- Zenbait hedabide**ek** bertatik bertara emango dute Udalerrri Euskaldunen Eguna.
- Munduko hainbat herrialde**etatik** etorritako surflariak olatuak hartzen saiatu dira. ***
- Munduko hainbat herrialde**etatik** etorritako surflariak olatuak hartzen saiatu dira.



Ohiko erdarakadak



✗ **Laster etorriko delaren / denaren / deneko berria zabaldu zen.**

✓ **Laster etorriko delako/den berria zabaldu zen.**



✗ **Ameriketara joan zen, han hobeto biziko zeneko ustean.**

✓ **Ameriketara joan zen, han hobeto biziko zelako/zen ustean.**



✗ **Maite gaituztenaren seinale da egin diguten harrera beroa.**

✓ **Maite gaituztelako / gaituzten seinale da egin diguten harrera beroa.**


***delaren/*denaren/
*deneko**
Aitzakia, albiste, berri, susmo, uste, zantzu, zurrumurru, esperantza, iritzi, irudipen, itxaropen... eta horrelako izenek gobernatzen dituzten perpaus osagarrietan **-(e)lako** eta **-(e)n** atzizkiak erabili behar dira, euskara batuan.



Egin kontu!

EUSKARAZ BAI, BAINA NOLA?

Zuen laguntza behar dugu Egin kontu! atala elikatzeko. Inguruan ikusten dituzuen kartel, mezu, idatziak... bidali eta egoki nola idatzi behar diren azalduko dugu. Noski, jatorria eta egilea isilpean mantenduko ditugu, helburua akatsetatik ikastea da eta!



GELDIALDI ESKATUA ≠ GELDITZEKO ESKAERA

Zain dezagun euskara!